


Zumaiako herri aldizkaria

1998ko urtarrila

BALEIKE

200 pzta.


42. go zbkia.



● Sute probokatua Larramendi inguruan

● Iker Ortiz lokatzetan nagusi

● Kirol portuaren lehen lanekin tira-birak



● J. M. Elosua:

"Epaiketan estatu arrazoiak arrazoi juridikoa gainditu du"

Foronda kultur etxea
tel.: 86 10 56
faksa: 86 17 42
e-mail: zumaia2@nauta.es

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Amaia Benito
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa
Juan Luis Romatet
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Dani Carballo,
Miriam Romatet, Jon
Manzisor, Josu eta
Arantxa, Igone eta
Nerea, Argi Aizpurua
e.a.

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua eta maketazioa

Juan Luis Blanco

Banaketa

Eneko Dorronsoro
Ainara eta konpainia

Publizitatea

Amaia Benito (86 17 89)

Inprimategia

Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazita-
ko esanen eta iritzien eran-
tzukizunik.


Baina... zer da hau?

Ez beldurtu! Gu gara, betikoak, baina oraingoan itxura berrituta
gatoz zugana, koloretan, ederturik! Ez da urte hasiera txarra, ezta?
"Estropizio" honen arduradunak izen bat dauka: Juan Luis Blanco.

Berak jantzi digu aldizkaria edertasun honekin. Baina ez dira hor amaitzen berri-
kuntzak. Itxurarekin batera, izaera ere berritzen goaz, pixkanaka ordea. Ez dugu
edukia aldatu, baina denborarekin hobetuko dugulakoan gaude. Horretarako
laguntzaile berriak ditugu, eta antolakuntza berria eta lan egituratuago bat garatu
dugu. Helburua? Baleike zure etxera iristea, ez aurren bakarrik, edo datorren
urtean, urtero baizik.

Ikusten duzun bezala, urte hasiera mugitua datorkigu, eta ez da horretan
geratuko. Pixkanaka igarriko dituzu aldaketa eta berrikuntzak, eta espero dugu
zure gustokoak izango direla, gure gustokoak diren bezalaxe.

Oraingoz, ez dago besterik. Gozatu aldizkari berri honetaz eta badakizu, datorren
hilera arte.



Baleike

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka	14 32 64
Polikiroldegia	86 20 21	Tren geltokia	86 11 27
Gurutze gorria	86 10 93	Taxi geltokia	86 13 60
Udaletxea	86 02 50	Bake epaitegia	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00	Posta	86 15 00
Osasun zentrua	86 08 62	Udaltzaingoa	86 18 70
San Juan Egoitza	86 12 73	Pilotalekua	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00	Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Musika eskola	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	86 02 48
Alkoholikoen senideak	47 54 03	Sexu-informazioa	32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udal



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



fundazioa
fundación



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kanta aleluia

Nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Zumaiaiko Udalari, Camiori edo dena delakoari.

Pozik nago, gustora. Inoiz ez nituela ikasiko uste nuen, baina metodo pedagogiko honi esker lortu dut, hainbeste urte eta gero, gabon kantak ikastea. Guzti-guztiak. Beno Erribera kalean entzuten direnak bai, behintzat.

Badakit Udalak megafonia jarri eta ahalegin horretan diru asko gastatzen duela eta horregatik jakinarazi nahi nion bale naizela, niregatik gehiago ez jartzeko (kantak ikasteko jarri badute, behintzat). Errepikatuaren errepikatuaz, eguna joan eta eguna etorri, lortu dudala azkenean. Lagunekin kalean elkartu eta ni beti "Kanta aleluia". Etxean nengoenean zer esanik ez. Komunera joan, eseri eta "Kanta aleluia". Saloian lasai irakurtzen, eta kaleko musikarekin "Kanta aleluia". Sukaldean afaltzen nuen bitartean "Kanta aleluia". Goizean esnatu, ohean, eta zer uste duzue zela neure buruari esaten nion lehenengo gauza? Kanta aleluia, eta ea goizean goiz ere zergatik ez zuten musika jartzen... Gabonetan etxean nengoenean ez nuen irratia jarri beharrik izaten (kaleko musikarekin nahikoa zen, eta, leihoa zabaldu

gabe, gainera). Edonorekin telefonoz hizketan eta Gabonak musika aldetik ere bizi ditugula konturatzen zen solaskidea ("Zer zortea zurea! Etxean lasai egon eta gabon musika entzuten!"). "Kanta aleluia".

Denen gustua egitea ez da erraza, ordea, eta oraingoan ere hor entzun ahal izan ditugu, megafonia dela-eta, kexak: abestiak behin eta berriz errepikatzen direla, Erribera kalean bakarrik dagoela jarrita, kalitate kaxkarrekoa dela, ozenegi jarrita dagoela... Enbidia eta inpotentzia. Ikas ditzatela abestiak, behingoz, hainbeste sakrifizio eta gero!

Nik bezala jende askok ikasiko zituen abestiak, honezkero, eta agian Udalari bururatuko zaio inoiz gehiago ez jartzea (ez mesedez, otoi, arren). Horren aurrean proposamen bat luzatu nahiko nioke: Gabonetan bakarrik jarri beharrean urte guztian ere jartzea. Urtarrilean San Sebastianak datozela? Danborrada entsaiatzeko erabiliko dugu. Otsailean? Hilaren bian kandelario eta otsailaren bukaeran "Karnabal tekiero". Martxoan Aste Santuko prozesioa eta apirilean San Telmo martxa. Gainera, ez legoke batere gaizki Erribera kalean bakarrik jarri beharrean megafonia herri guztian zehar ipintzea, edo are hobeto, izugarrizko bafle bat Artadi aldean; hartara

oikiarrek (ere) zerbait entzungo lukete.

Nire ideia eta proposamenak zerbaiterako balioko duelakoan... Kanta aleluia.

I.M.A.

NAN 15.983.963

Alkate jaunari

Zumaiaiko biztanle batzuek, gutun hau idaztera bultzatu gaituen zerbait ikusi dugu.

Gaur goizean paolera bueltatxo bat ematera irten gara. Bertan gerrate bat egon dela dirudi; zulo handiak lurtean, pitzadurak paretetan, harriak lurtean... Horrelako itxura zuen hainbeste kostatutako obra berriak. Ez duguna ulertzen da nola litekeen, paola egin zutenetik urtebete inguru pasa eta gero, pusketa bat bigarren aldiz erortzea.

Ondorioz, hau ikusita, kexatzeko arrazoi batzuk baditugula uste dugu. Guk nahi duguna beraz, gertatutakoaren esplikazio bat ematea da. Azkenik esan behar dizuguna da ea paolera gabetan joan nahi dugunok linterna poltxikoan hartuta atera behar al dugun etxetik.

Besterik gabe, erantzun baten zain gaituzu.

MAKUXTU.



LIBRERIA

opariak opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569Loredenda
JEMARLANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117- 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 861330

AUTO-ESKOLA

*Gida baimen guztiak
ateratzeko baimendua.*Praktika eta azterketak
Azeptatzen*GURE HELBURUA: Gidari
trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behe Tel. 861018



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861157



JOXE JOAKIN AIZPURUA

Zumaiar bat txapelketan

*Bertsoen txapelketa
harturikan gaia
zumaiarrok diogu
bagendun garaia
badut bertako bati
zerbait esan nahia
"finaleraino ere
heldu hintzen Maia
oso leku onean
utzi duk Zumaia."*

*Bada zenbait lan mota
eta hainbat lege
horrek batzuei kalte
besteei mesede
jarritako lanetan
aritu zen trebe
eta nik pentsatzen dut
zalantzarik gabe
goian izango dela
hurrengoan ere.*

Euskaraz bizi

1998ari hasiera eman diogu eta ezingo naiz gelditu urte berri on bat opa dizuedala esan gabe.

Gaia ez da ordea urte berri honen hasiera ona izan den ala txarra izan den azaltzea. Gaia konplikatuagoa iruditzen zait guzti hau baino. "Zein da ba gai hori?" esango duzue, ezta?

Gaur goizean postontzian begiratzean, betiko moduan, publizitatea eta ordainagiri ugari besterik ez zegoen. Gehienetan publizitatea begiratzeko ohiturarik ez dut izaten eta zuzenean zakarrontzira botatzen ditut paperak, baina gaur begira jarri naiz eta bertako salneurri edo eskaintzetan fijatu beharrean, euskaraz ala erdaraz idatzirik zeuden begira jardun dut. Lau iragarki nituen esku artean eta horietatik bakarra zegoen bi hizkuntzetan idatzita; hau da, ez zegoen bakar bat bera ere euskara hutsean idatzirik. Zergatik?

Postontzia utzi eta kalera irten dut bueltatxo bat ematera eta eguerdi aldea denez, etxeakoandre guztiak etxerantz doaz, erosketak egin ondoren beren etxeakoztat bazkaria prestatzera. Hauei begira jarri eta hor doaz denak eskuartearen plastikozko poltsa publizitarioak dituztelarik (carnicería X, frutería Y, droguería Z); denak erdarazko iragarkia daramate eskuartearen, baina ez gara konturatzen horretan pentsatzen jartzen ez bagera.

Buruan ez darabilt beste ezer ere eta aurrerago, komertzioetako karteak begira jarri naiz. Eskubitarra begiratu eta "peluquería", ezkerretara begiratu eta "restaurante-asador". Aurrera noan heinean harridura haundiagoa izan da ondorengo ikustean: "harategia-carnicería". Baina barrura begiratu ondorengo ez da harridura izan, baizik eta sustoa: "tenemos pollos de caserío", "chuletas de cerdo a 700 pesetas". Ulgergarria iruditzen zait dendetara joan eta erdaraz eskatzeko daukagun joera hori.

Guzti hau ikusi eta ondorio bakar batera iritsi naiz: euskaraz ez digute ezer ere eskaintzen; euskaldunak ez al gara kontsumitzaileak? Edo ez al da izango "como vosotros ya entendéis, qué más da, es más fácil para nosotros", eta beti lehenean.

Gehienetan gauzak batere pentsatu gabe egiten ditugu eta beti errazenera jotzen dugu. Har dezagun denbora apur bat eta saia gaitzen euskaraz bizitzen eta noski, guk bizitzen dugun heinean kanpotarrek senti dezatela euskara ikasi eta erabiltzeko beharra.



JON IMAZ



GANBARA

TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

English School
Harvest

San Jose, 11 bis

Tel. 143334

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Zumaia Biziriket abenduan salatu zuen bigarren aldiz itsas sarreraren sakonera eza.

Kirol portuarekin gorabeherak

Dragatu
beharreko lur
zatiarekin
eztabaida
piztu da

Kirol portuaren eraikuntza buruhauste bat baino gehiago sortzen ari da. Aurrez finkaturik zeuden epeak ez dira zehatz-mehatz betetzen ari, nahiz eta pentsatzen den honek ez duela proiektu orokorrean inolako eraginik izango.

Printzipioz lehen lanek abenduan hasi behar zuten, baina Gabonetako oporrak gainean zeudela eta, Errege eguna pasatu arte atzeratu ziren. Urtarrilaren 7an hastekoak ziren baina itsasoaren egoera txarrak ez du utzi oraindik hau horrela gerta dadin.

Lehen lan hauek ordea eztabaida gogorra piztu dute alde ezberdinen artean. Lehenengo urrats batean, draga ttiki bat paol puntan itsaspean pilatuta dagoen hondar guztia kentzerá etorriko da, barrako sarrera hori oztopatuta egon ez dadin.

Lan hau ezinbestekoa da kirol portuak hartuko lukeen padurako lur zatia dragatu ahal izateko. Zeregin hau itsasotik etorri behar diren beste draga handi batzuek burutu behar

dute. Baina hemen dator eztabaida sortarazten duen gaia.

Hondakin kopuru handia

Dragatu beharreko hondar eta lokatz zati handi horren barnean dauden material guzti horiek kutsagarriak ote diren edo ez, hori da kakoa. Guztira, 514 mila metro kubiko baino gehiago dragatu behar dira bertan, kopuru honetatik 369 mila itsasora bota nahi dira. Geratzen diren beste 145 metro kubikoak berriz betegarri gisa erabiliko lirateke.

Arazoa itsasora bota nahi den hondakin kopuru handi horrekin sortzen da. Zehazki Getaria eta Orio arteko itsasgune batean isuri nahi da hondakin guzti hau, bere barnean hainbat material biltzen dituená. AZTI-SIO enpresak 1993. urtean egindako txostenean azaltzen duenez, material kutsagarriak dira.

Hauek zer-nolako materialeak diren aipatu baino lehen, argitu beharra dago AZTI, Kirol Portuaren proiektu ofiziala egin zenean Ingurugiroaren

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



**ZUMAIA
OPTIKA**

Txomin Agirre kaia, 1 Tel. 143057

Denda aldatzeagatik LIKIDAZIOA

BALEIKE

1998ko urtarrila. 42. zbkia.

Inpaktu Azterketa egiteko kontratatua izan zela, eta proiektu honek ingurugiroan izan zezakeen eragina aztertu, neurtu zuela.

Material kutsagarriak

Lehen aipatutako txosten horren arabera, itsasgune horretan jaurtiko litzatekeen metal karga, honako hau da: burdina 2.817.870 kilo, beruna 28.270 kilo, nikela 6.240 kilo, kobrea 8.690 kilo eta kadmioa 920 kilo. Hau da, material kutsagarriak lirateke eta horrela isladatzen du AZTI enpresak berak 1997 ko txostenean.

Bertan esaten duenez, marisma edo padura, kadmioa, beruna, kobrea, burdina, eta arin bada ere nikelaz kutsaturik dago. 92an barraren inguruan ingurugiroari buruzko eragin azterketa egin zenean ere, INTECSA enpresak AZTIrentzat datu batzuk jaso zituen eta bertan, zera zioen: "ibai bokaleko puntu zehatz batzuetako azterketa egin ondoren, kadmioaren kasuan kutsadura garrantzitsua da eta arinagoa berunaren kasuan".

Arrantzaleak Zumaiako portua oztopatzeko prest leudeke

Hau da kirol proiektuaren txosten ofizialek diotena eta honen inguruan sortu dira gorabeherak. Jose Mari Irigoien Gipuzkoako Kofradietako Presidentearen hitzetan, "hondakin guzti horiek Getaria eta Orio arteko itsasgune horretara botatzea astakeria handia da, biltzen dituen material guzti horiek oso kutsagarriak direlako". Itsasoko zati hori oso aberatsa dela arrantzarako adierazi du Irigoienek, batik bat berdela harra-

patzeko. Zentzu honetan, "hondakin kopuru handi hori leku horretara botatzen bada, arrantza hondoratu egingo dela seguru gaude".

Ez du uste horrelakorik gertatuko denik Rikardo Peña Zumaiako Alkateak eta ezta Urokai Zumaiako Portu Eragile Elkartek ere. Hauen ustetan, hondakin hauei buruz egindako azken azterketetatik ondorioztatzen denez material hauek ez dira kutsagarriak, eta beraz, Kofradiakoe diotena ez da egia; hau da, ez da itsasgune horretako arrantzan eraginik izango eta berdin mantenduko da.



Dena den Rikardo Peña alkateak argi azaldu duenez, ez du inolako gatazkarik sortu nahi kofradiakoein eta ateak irekita uzten ditu, hondakin guzti hori beste nonbaiten isurtzeko aukerarik badago, hori egiteko; ahal izanez gero Zumaiatik hurbilago. Irigoienek garbi utzi du, gauzek dauden bezala jarraitzen badute, inolako aldaketarik gabe, ez dutela utziko barrako sarreran egin behar diren lehen dragatze lanak egiten, portua oztopatuko dutela konponbide bat aurkitu artean. ◀ IGOR URANGA

Laburrak

Igerilekuko lanak bigarren

fasean sartu dira. 1999ko erdialdean amaitzea espero den igerilekua erritmo onean doa. Aurreikusitako epeak betetzen ari dira eta momentu honetan 235 milioi pezeta inguru kostatuko den lanen bigarren fase batean sartua dago. Bigarren fase honetan, igeltsaritza, arotz lanak, iturgintza, suteen aurkako babesak, klimatizazioa eta igerilekuen depurazioa bezalako lanak sartzen dira. Hau amaitutakoan azken ikutu batzuk besterik ez dira geratuko igerilekua erabat amaitzeko.

Depuradora eta bariantea.

Rikardo Peña alkateak adierazi duenez, legealdi hau amaitu baino lehen depuradora bat eraikitzen hasteko asmoa dago, 1.700 milioitako aurrekontua izango lukeena.

Bestalde, bere hitzetan, 2000. urtearen ondoren egin nahi den bariantearen proiektua idazten ari dira momentu honetan. Irtenbide bat bilatzen ari dira estazioa aldean sor litekeen korapiloaren inguruan.

Lehergailu bat Ayra-Durex enpresaren kanpokaldean.

Abenduaren 23an mugimendu handia izan genuen Ayra-Durex enpresa inguruan. Goizean pakete susmagarri bat aurkitu eta hau konprobatzera Ertzaintza eta Guardia Zibileko artzailariak etorri ziren. Ordubate baino gehiago aztertze lanetan aritu ondoren, metxa batekin lotuta zeuden bi kanping-gas zirela baieztatu zuten. Ertzaintzaren esanetan, ez dago argi lehergailu hau nori zuzenduta zegoen.




Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ILE APAINDEGIA



Etkezarreta, 19 Tel. 862342



J
A
T
E
T
X
E
A
·Eguneroko bazkaria
·Pintxo eta bokatak
·kodrilentzako menu bereziak
·kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Oxford eta Arrangoletan etxebizitzak eraiki nahi dira



Oxforden etxebizitzak egiteko asmoa du Udalak.

Azkenengo udal plenoan adostuta-koaren arabera, Eskola Profesional Zaharrean edo Oxford bezala ezagutzen den eraikuntzan eta gaur egun Arrangoletako Ikastola altxatzen den gunean, etxebizitzak egiteko asmoa dago.

Egitasmo hau pixka bat gehiago zehaztuz, eta Oxfordeko kasuari dagokionez, hauxe da egin nahi dena. Eraikuntzaren kanpoaldea, dagoen bezala mantendu nahi da; ekitaldi kultural ezberdinetarako erabiltzen den beheko areto hori ere bere oinarrian mantendu egingo litzateke, baina erabilera hobetuz.

Hogeita bat etxebizitza

Areto horrek instalazio egokiago batzuk izango lituzke, erabilera gehiago aprobetxatu eta era egokiago, txukunago batean eskaintzeko. Udal jabetza izango luke eta kostuak areagotu egingo liratekeenez, goiko solairuetan eraikitako etxebizitzetan sortutako plusbaliarekin ordaindu ahal izango litzateke. Guztira, Eskola Profe-

sional Zaharreko eraikuntza horretan 9 etxebizitza egiteko asmoa dago.

Bestalde, gaur egun Arrangoletako Ikastola dagoen lekuan beste 12 bat etxebizitza eraiki nahi dira, eta hauetatik hiruzpalau babes ofizialekoak izango lirateke. Horretarako jakina, ikastolako edifizioa bota egin beharko litzateke eta hori egiteko ez du oztopo handiegirik ikusten Udalak, izan ere futbol zelai ondoan egin den ikastetxe berriak ordezkatzuko bailuke. ◀

Ur saneamendu berritzaile bat ezarriko da Gorostiagan

Dakizuenez, Gorostiagan aspalditxotik dabilta lanean industrialdea prestatzen eta. Hasiara batean arazoren bat edo beste izan zen hondakinak nora jaurti erabakitzeke orduan. Baina azkenean hau konponduta, badirudi obrak aurrera doazela inolako arazorik gabe.


Gainera aurreikuspenak betetzen badira, martxorako edo apirilera lehen industri pabeiloak eraikitzea espero da, izan ere enpresa dexente dira dagoeneko poligono horretan finkatzeko asmoa agertu dutenak.

Hemendik gutxira, gainera, ur saneamendurako sistema berri eta berri bat

ezarriko da Gorostiagan. Beduako zonalde hortatik irten eta estazioraino gutxi gora behera, hodi batzuk joango dira, ur azpitik hiru bat metrora joango liratekeen hodiak. Hauen luzera gutxi-gorabehera, 310 bat metrokoa izango zen eta adituek azaldu dutenez, oso sistema berritzailea izateaz gain, azkarra eta garbia da.

85 milioi pezetako aurrekontua

Hasiara batean, hodi hauek lur gainetik joatea aztertu zen baina gune horretako ingurune naturala delikatu xamarra dela kontuan hartuta, eta berau kaltetua gerta ez zedin, aipatutako sistema berri hori aukeratu



Gorostiagan joango da ur saneamendu berria.

da. Ur saneamenduko lan hauek Mariaezkurrena enpresa nafarrak burutuko ditu eta proiektu honetan 85 milioi pezeta baino gehiago inbertituko dira.

Sistema berritzaile hau ur saneamendurako erabiltzen den lehen aldia da. Bilbon adibidez, metroko obrak egiteko erabili zuten, baina batez ere Katalunian erabili izan da gas zerbitzua ezartzeko. ◀

IHINTZA
taberna
Tfn. 860472
Ortega y Gasset, 3


BASUSTA
ERRETEGIA
Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

7
MARES
Arrain eta mariskoak.
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak.
7 MARES DZOTZUAK

Eragindako sute batek hamar hektarea baino gehiago erre ditu

Urtarrilaren 9an Zumaia sute ikusgarri baten lekuko izan zen. Gaueko 11ak eta 11.30ak artean piztu zen sua eta ikerketa guztiak egin ostean, norbaitek eragin zuela egiaztatu ahal izan da. Ezbeharra ordu horretan hasi zen, itxura denez norbaitek Askizu auzoko bi gune ezberdinetan sua eman eta gero.

Hego haizearen ondorioz, berehala zabandu eta zonalde horretatik ia Karakas baserrietaraino iritsi ziren su garrak. Leku hau ezagutzen ez duzuenontzat Laia Museo aldamenean dagoen bidea hartu eta kilometro erdira daudela gutxi-gorabehera bi baserriok. Bertan bizi direnek adierazi dutenez, "ia gauerdia zela telefono dei bat jaso genuen Santa Klaratik, eta baseritik

kanpora irten ginenean sua menditik behera zetorrela konturatu ginen".

Dena den, argitu dutenez, sua itzaltzera berehala etorri ziren puntu horretara eta "nahiz eta beldur dexte pasa genuen ordu pare batean, han bildutakoek ez zuten denbora gehiegirik behar izan sua kontrolatu ahal izateko". Informazio iturri ofizialek diotenez, goizaldeko ordubiak alderako sua kontrolatua zegoen baina hiru ordu gehiago behar izan zen erabat itzaltzeko.

Itzaltze lan hauetan, Udaltzaingoa eta hainbat bolondresez gain, 8.000 litro ur zituen Diputazioko Ureska Zerbitzuko kamioi zisterna bat erabili behar izan zen. Ideia orokor bat egin dezazuen, kilometro bat baino gehiagoko luzera zuen sute honek.

Erretako mendi puska horretan batez ere sastrakak, sasiak, belar zaharra eta zuhaitz txiki batzuk zeuden, eta baita pinudi zati txiki bat ere. Honetaz gain, bozpasei jabeen lur sailak ere erabat kiskalita geratu dira.




Sutea ia Karakas baserrietaraino iritsi zen

Guztira hamar bat hektarea baino gehiago.

Ez da lehenengo aldia Larramendiko lur zati horretan horrelako ezbehar bat gertatzen dena, ezta gutxiago ere. Azken urteotan 6-8 bat sute gertatu dira toki horretan eta badirudi denak nahita eragindakoak izan direla. Arrazoi hau dela eta, susmo handiak daude guztiak pertsona edo talde berak sortarazi dituela.

Paol muturra hondatuta.

Aste hauetan egondako itsaso txarrak eta sortarazi dituen olatu handien indarrak, paol muturreko kanpokaldeko horma pusketa bat berriz ere puskatzea eragin du. Ez da hau gertatzen den lehenengo aldia. Orain dela hilabete batzuk ere olatuek paoleko puntu horretan horma zati bat behera bota zuen.



AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45

Tel. 861485



Erribera kalea

Tel. 861523



Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206

Jose Maria Elosua "Porte"

"Epaiketan estatu arrazoiak arrazoi juridikoa gainditu du"

Azken urteak Donostian eman baditu ere, 41 urteko

zumaiarra dugu Porte.

Abokatua ofizioz, euskal

politikan garrantzi handiko

gizona, Gazteizen HBko

legebiltzarkidea, kartzelaren

iluna ezaguna du. Egia kolek-

tiboko abokatu gisa hainbat

kasu eraman ditu, Alcalá

hoteleko hilketa, non

Muguruza hilik eta Esnaola

larriki zaurituta gelditu ziren,


eta HBko Mahai Nazionalaren epaiketa, besteak beste.

■ Nondik datorkizu Porte ezizena?

Ibañabarrietako baserri batek izena zuen horrela. Gure aitaren ama, hau da, nire amona hangoa omen zen, eta familia osoari izena hortik datorkigu.

■ Gaztetan bizi izan zinen Zumaian. Nola bizi zenuten garaia?

Gure gazte garaia frankismoak markatu zuen. Alde batetik oso jende politizatua eta euskaltzalea ginen, Herri Gaztedi eta ikastolen mugimenduen inguruan egindakoak. Bestetik, gure giroa garai hartan Taosa salafiesta inguruan zegoen, nere kuadrilak oraindik izen hori darama. Gainontzean gaurko gazteen antzera,



inguruko festetara joan, neskatan egiten saiatu... eta kale! Futbolak ere dexente markatzen zuen gure kuadrila, Patxanga inguruan egindako kuadrila gara.

Ondoren, hamasei urterekin COU ikastera Donostiara joan nintzen, karrera ere han egin nuen, ezkondu eta harrezkero han bizi naiz.

■ Zer lotura mantentzen duzu Zumaiarekin?

Orain ere asteburuero etortzen saiatzen naiz, ni zumaiarra naizelako eta familia, kuadrila eta abar han ditudalako. Lehen gainera zinegotzi nintzen eta asteen bi edo hiru aldiz udaletxean batzordea izaten genuen. Gainera orduan orain ez bezala gobernuan parte hartzen genuen. Bestela Zumaiari begira beti egon naiz, orain bulegoa ere ireki dugu bertan, eta aukera izanez gero bertara bizitzera joateko ere irrikitan nago.

Zuzenki jakin dugu epaileak presionatu dituztela

■ Zer nabarmenduko zenuke zinegotzi izan zinen garaitik?

HBren lehen kandidaturan nengoen, baina ez zerrenda buruan. Orduan ere orain bezala, garai gogorrak ziren, eta HBko hiru zinegotzi

hautatuek dimititu egin zuten, eta beste hiru sartu ginen. Hala ere, nabarmentzekotan nere gaztetasuna, eta orain ez dagoena, udaletxean adiskidetasun giroa zegoen, nahiz eta gure artean desberdintasun politiko handiak izan.

■ HBko Mahai Nazionalaren epaiketan abokatu izan zaitugu. Zer konklusio ateratzen dituzu epai honetatik?

Epaiketan estatu arrazoiak arrazoi juridikoa gainditu duela. Epaietarik gabeko epaia izan da; epaiketak hilabete inguru iraun bazuen ere, sententziak ez die inolako kasurik egin aurkeztutako probei, ez testigu ez perituei. Epaia instrukzioa hasi zen elementu berdinekin eman dute, alegia, HBk ETari laguntza ematea zuela helburu, espazio electoral bat utziz. Zuzenki jakin dugu epaileak presionatu dituztela, bai Mayor Orejak auziko epaile batzuekin izandako bileren bitartez, eta baita auzitik kanpoko beste epaile batzuekin ere. Beraz, presio horiek izan dira nagusi, eta PPren politika anti-ETA baino anti-abertzale bihurtu dena gailendu da, hau da, egurra, egurra eta egurra. Epai erabat politikoa izan da, eta zigorra erabat politikoa izan da.

■ Defentsako abokatuak oso ondo aritu zinetela azpimarratu dute komunikabide guztiek.

Talde lana izan da. Ordu asko dedikatu dizkiogu, baina gustora, konbikzio osoa genuelako arrazoi juridikoa gurekin zegoela. Alde batetik, epaitutako egiteak adierazpen askatasunaren barruan kokatzen zirelako, eta bestetik kode penalean respontsabilitate kolektiborik jasotzen ez denez, ezin zezaketelako inolaz ere Mahai osoa zigortu.

■ Hemengo futbol taldeek Madrilen ondo jokatu arren partidua galtzen dutenean, arbitroak izaten du errua. Zuei zer gertatu zaizue?

Estatu arazo bezala planteatu zuen Espainiak prozesu hau eta horrela planteaturik, Estatuak ez ditu errespetatzen demokrazioaren zutabe nagusiak, adibidez, botereen arteko independentzia. Hemen partidua kanpoan eta arbitroek ez dute araudia, legedia errespetatu.

■ Epaituak libre atera zitezkeela pentsatu al zenuen inoiz?

Nahiz eta jakin estatu interesak jokoan zeudela eta prozesu hau erabat politikoa zela hasiera-hasieratik, epaileen duintasunean sinesten nuen. Egia esan ez nuen espero zigor epaia izango zenik, papelean ikusi arte.

***Egia esan ez nuen
espero zigor epaia
izango zenik,
papelean ikusi arte***

■ Epaiketa hau dela eta, zer diozu komunikabideek jokatu duten paperaz?

Zoritzarrez komunikabideek independentzia erabat galdua dute, eta politikoki posizionatuta daude gainera. Eta horrek eragin du epaiketari eman dioten tratamenduan. Hasieran politikoei ematen zuten mezua, hau da, HB=ETA etabar zabaltzen zuten, eta epaiketa kontestu horretan afrontatu zen. Gero mezu agresibo bat emaketik isiltasunera pasatu ziren epaiketaren mami eza agertzen joan ahala, epaia eman zen arte. Epaia eman denean berriro itzuli dira lehenera.

■ Deliturik aurkitu al daiteke Alternatiba Demokratikoaren zabalpenean?

Ez dago inolako deliturik. Bideo horrek plazaratzen duena bake proposamen bat da, eta bake alternatiba hori HBk asumitu egiten duenez, bere lana hau zabaltzea da.

■ Ikusterik izan ez dugunoi kontatuko al diguzu HBren bideo famatu hori?

Bideoak bi dira. Batek 20 minutu inguruko iraupena du, eta besteak 2 minutukokoa, gutxi gora-behera. Lehenengoan burua estalita duten hiru pertsona ageri dira. Hasiera batean mendian, beren aurkezpena egiten dute, eta ondoren eta mahai batean eserita alternatiba azaltzen dute. Azkenik mendian barrena desagertzen dira, pistolak atzekaldean gerrian barrena dituztela, eta pistolak agertze horretan oinarritzen da epaia.

■ Epaituak kartzelan daude. Zer da abokatuoi egiteko geratzen zaizuen?

Bueno, lehen pausoa emana dago, anparo errekurtsioa jada aurkeztu baitugu. Errekurtsioarekin batera epaiaren ejekuzioa bertan behera uzteko eskatu da. Hala ere esperantza gutxi dugu, orain arte jasotako jipoia ikusita. Esperantzak izatekotan Europan ditugu. Baina legediak eskatzen du Estrasburgora jo aurretik, Estatu bakoitzeko errekurtsioak agortzea, eta horrek suposatzen du Europara ezingo dugula jo datozen bi urteotan.

Hortaz aparte geure artean eztabaibatzen ari gara ONUko komisio batera jo ala ez, eta horretarako ez dago itxaron beharrik. Baina erakunde horrek emango lukeen erabakiak ez du binkulaziorik Espainiako Estatua-rentzat.

■ Historiara pasako den epaiketa bateko partaide izan al zaitugu?

Noski, prozesua historikoa izan da. Historia idazten duenak ipiniko ditu gauzak bere lekuan. Espainiaren historia PPK idazten badu hau izugarritzko garaipen gisa agertuko da. Gure



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Tel. 861433
Faxa. 861067

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 860760



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908-775508



**ENTER
INFORMATIKA**

*Ordenagailu salmenta
serbitzu teknikoak
hardware eta software
informatikako kurtsoak*

Baltasar Etxabe z/g Tel. 861175
Faxa. 860550



Basadi auzategia, 10 behea
Tel. 862051

DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Koktel bereziak

Basadi Auzategia 9-A 2-B

historia euskaldunok idazten badugu, ba hau letra beltzez eta letra txuriz idatzita agertuko da. Letra beltzez Estatuaren jarrera lotsagarritzat joko delako, eta txuriz, zenbait jenderen duintasuna azpimarratuko delako.

Epaia Euskal Herrian kritikatu egin da, nahiz eta Estatuan txalotua izan. Horren adierazgarri abenduaren 15ean egitekoa zen manifestazioarako deialdi zabala. Nola baloratzen dituzu honen inguruan izandako gertaerak?

Alderdi politiko instituzionaletatik epaiari egin zaizkion kritikak oso "timidoak" izan dira eta kritika horiek ez diote arazoaren muinari heldu.

Lehen esan dudana bezala, epaiketa hau "estatu arazo" bezala planteatu da, eta arazoari aurre egiteko, Estatuak, estatu bat demokratizat jotzeko erreferentziatzen hartzen diren printzipio nagusiak, inolako lotsarik eta konplexurik gabe hautsi ditu. Nagusiki, botere judizialaren eta ejekutiboaren artean behar den independentzia apurtu da, baina, era berean, adierazpen askatasuna, informazio askatasuna (ematekoa eta jasotzekoa), errugabetasun printzipioa, pluralismo politikoa eta abar luze bat bortxatu dira epaiarekin. Azken finean, Zuzenbideko estatuaren eta legalitatearen porrota adierazten ditu epaiak, eta horrek, erantzun tinkoago eta gogorrago bat behar lukeelakoan nago. Beraz, erantzun gehienak "timidoegiak" izan dira.

Erantzunik zentzudunena bazirudien ELA, LAB, ELKARRI, EHNE eta abarren aldetik zetorrela, manifestazioarako deialdia erantzun adierazga-



riena zelarik. Zoritxarrez erantzun mota hori frustatu egin zen. Esan beharrik ez dago ETAK Partido Popularreko zinegotzi baten aurka egindako ekintzak erantzuna zaildu egin zuela, baina, nire iritziz, zailtasun hori gainditu beharra zegoen. Ezin da ahaztu, gainera, organismo horien ekimenak epaiari erantzuna ematea baino haruntzago joan nahi duela eta hori horrela izanik, ausardia handiagoz jokatu beharko dute.

Badirudi prozesu hauetan erabakiak lehendik eta beste leku batzuetan hartzen dituztela

Aurrera egin nahi badute, ETaren ekintza tarteko egin beharko dute, Estatuaren erasoak tarteko egin beharko duten bezala. Organismo horiek ireki nahi duten prozesoa ETaren ekintzarik ezara baldintzatzen bada, zoritxarrez, prozesu horren porrota izango da.

Paralelismorik ikusi al duzu epaiketa honen eta Alcalako prozesuaren artean?

Paralelismo bakarra, azken finean epaiketan ikusitakoak ez duela ezertarako balio. Badirudi prozesu hauetan erabakiak lehendik eta beste leku batzuetan hartzen dituztela. Alcanan ere pentsatzen genuen frogak erabatekoak zirela, baina hala ere auzitegiak Ynestrillas absolbitu egin zuen.


Mahai Nazionala espetxeratu dute. Zu zeu ere bi aldiz kartzelan egona zara, frankismo garaian lehen-dabizi eta Revilla auzian bitartekari aritzeagatik ondoren, urte betez. Nola bizi izan zenituen une haiek?

Bi egoera oso ezberdinetan izan naiz barruan. Lehen aldian oso gaztea nintzen, gainera Franco hiltzear zegoen, eta bagenekien denbora gutxian irtengo ginela. Beraz, kasik espetxea zer zen jabetzeko denborarik ez nuen izan. Bigarren aldian berriz, luzeagoa izan zen, helduagoa nintzen, seme bat ere banuen, eta oso espetxe txarra tokatu zitzaidan. Materialki gaizki, baina buruz ondo nengoen, konbentzitura nengoelako egin nuena ondo eginga zegoela, prozesuak ondo ateratzeko perspektibak ere banituen eta apoio izugarria bai familiarena, bai lagunena, bai inguruarena.

Presoak Euskal Herriratzearen aldeko mugimendu handia dago. Nola ikusten duzu hau?

Zaila ikusten dut, nire iritziz prozesu hau ez delako gauzatuko PP bakarrik uzten dugun arte. Eta horrek alderdi politiko guztien aldetik estrategia aldaketa bat suposatzen du. ◀

ENEKO DORRONSORO ETA JOSU WALIÑO



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 860201



PEUGEOT



haur jantziak

Amaiako plaza, z/g

Tel. 860959



Inma Zubimendi

Ez, usaiak
buruko mina
ematen dit.




Uxue Uzkudun

Bai, usain ona
daukalako gustatzen
zait. Beti lavanda
perfumea ibiltzen det.



Adriana Sosa

Bai, gustatzen zaizkit
eta. Nere gizonak
erregalatutakoak
ibiltzen ditut eta oso
ederrak dira.



Javier Arana

Ez, sekula ez.
Ez det ohiturikan.



Javier Osa

Ez,
ez daukat
ohiturikan.



Fermin Leiza

Bizarra kendu ta
ondoren alkohola
botatzen det.
Ni ez naiz txulua!



Lourdes Crespo

Kolonia erabiltzen
det gustatzen zaidalako.
Eau de Rochas
ibiltzen det.



Pello Etxabe

Momentu honetan ez.
Sasoi batian
presumidua nintzan eta
ibiltzen nuen.
Orain ordea
Mousell gelakin
garbitzen naiz.
Prexko-prexkoa da.

BELARDENDA SIWA
Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi, 5-c behea
Tel. 143404 - 860012

Amertze
Erribera kalea, 6 Tel. 861707

KBI
TABERNA - ZUMAILA
Tel. 143379

Zumaia Lantzen

Hirigintza proiektuak
bideratzea helburu

*Urte berria estreinatzen
dugun honetan, laister
kaleratuko dira 98ari
dagozkion aurrekontuak,
eta bertan, Udalaren diru
kantitate handi bat*

*Zumaia Lantzen delakoari
zuzenduta dagoela ikusi
ahal izango dugu, aurreko
urteetan bezala. Baina
izenaz ezaguna dugun
elkarte honen zereginen
berri ba al dugu herri-
tarrok? Halako diru
kopurua zein helbururekin
erabiltzen duten jakinarazi
nahian, datozen lerro
hauen bitartez elkarte
honen nondik norakoak
azaltzen saiatuko gara,
sortzeko arrazoietatik
hasita, esku artean dituen
proiektuetaraino.*



Babes ofizialeko etxebizitzak Zumaia Lantzenek bideratu ditu.

Udalak zailtasun tekniko zein adminis-
tratibo ugari izaten ditu hirigintzako
proiektuak aurrera eraman ahal
izateko. Lege aldetik lotura handia
suposatzen du lan hauetan udal bezala
aritzeak, merkatuan mugitzeko zailta-
sunak izaten dituzte, edozein erabaki
hartzeko plenoak antolatu behar
izaten dira... Oztopo hauek izanik, eta
hainbat esperientzia ikusita, Azkoitia
eta Hondarribikoak esate baterako,
gure herrian ere hirigintza mailan
aritutako litzatekeen sozietate anonimo
bat eratzea erabaki zen, Zumaia
Lantzen S.A. hain zuzen ere.

Zumaia Lantzen sozietate anonimo bat
da, eta administrazio kontseilu batek
osatzen du. Bertako lehendakaria
Ricardo Peña alkatea da eta kontsei-
lariak Udaleko alderdi politikoetako
zinegotzi bana: EAJtik Asier Esnal,
HBko Migel Aperribai, EAKo Pedro
Uribe-Etxeberria eta PSOeko Felipe
Gutierrez hain zuzen ere. Sozietate-
aren kapitala diru publikoz osatua

dago, bertako akzionista bakarra Udala
delarik, eta horregatik agertzen zaigu
Zumaia Lantzen herriko urte hasierako
aurrekontuetan. Baina zertan
erabiltzen da diru hau? zer eginkizun
du Zumaia Lantzenek? Bere zeregina,
bi hitzetan esanda, herriko proiektu
urbanistikoak aurrera eramatea da.
Eta horretarako Esarbe izeneko
zerbitzu enpresa bat du kontratatuta.
Udalak erabakitzen du urtean zehar
herrian egin beharreko hirigintzako
lanak zein diren, eta ondoren
ESARBERi esaten dio. Bertan Jose
Ramon Estonba arduratzen da lan
hauen gestioa egiteaz. Bere egin-
beharra honakoa da: lana egingo
luketen enpresa ezberdinekin harre-
manetan jarri, eta hauek beren aurre-
kontuak aurkeztu ondoren, Zumaia
Lantzenen esku geratzen da lanak
adjudikatzea (ia erabakita egoten da
aurrez, diru gutxien eskatzen duenari
eman ohi baitzaio). Azken finean, Jose
Ramon Estomba Esarbeko ardura-



Loitz

*Eskola eta
bulegorako materiala
*Enkoadernazioak
*Fax publikoa
*Aldizkari eta opariak

Erribera, 4
Tel./Faxa: 143422



**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

Paki
Belardenda



OSASUN NATURALA

Erribera kalea, 2 Tel. 143156 - 862244

dunak esan digunez, enpresa honen zeregina gestio lana da besterik ez da.

Oro har urbanizazio bat eraikitzeke prozesua honako hau da: lehenik Udalean gune ezberdinak zer erabilpen izango duten erabakitzen da. Ondoren proiektua enkargatu, eta azkenik erabilpen konkretu bat eman nahi zaion lur sail hori urbanizatzeari ekiten zaio. Lur jabea pribatua baldin bada, gastu guztiak jabearen kargu joango dira, eta gainera Udalak lur zati osoaren % 15a bereganatzen du gestio lanengatik. Beraz, lan hauen bidez udal ondare urbanistikoa handitzen da. Zumaia Lantzen urbanizazioa egin arterainoko bidez bakarrik

arduratzen da, baina sarritan berak hartu duen lur zatia ere eraikitzen du. Honen helburua, merkatuan eragitea da prezioetan eragin ahal izateko. Adibidez, lur industrialean pabilloi batzuk eraikitzen baditu eta prezio merke xamarrean salgai jarri, ondoren etorriko direnak ere antzeko prezio batera saltzera behartuta egongo dira, hau da, inguruan eraikitzen dutenen prezioak baldintzatzen ditu.

Orain arte elkarte honek aurrera eraman dituen egitasmoak gisa honetakoak izan dira. Bai ADU 21 deritzon estazioko industrialean, baita poligonoan egin dituzten babes

ofizialeko etxeetan ere, lurjabeak pribatuak ziren.

Aurrera begira, berriz, Gorostiagako industrialdea izenez ezagutzen dugun ADU 32 proiektua darabilkite esku artean. Kasu honetan lur zati handi bat Udalarena izaki, lehen bultzatu dituen proiektuetan baino erraztasun handiagoak izango ditu. Bestalde, Arrangoletako Ikastetxea dagoen tokian babes ofizialeko etxeak edo etxebizitza sozialak egin eta Oxford aretoa jasotzen duen etxe blokea berritzeko asmoa ere badute, baina hauek oraindik asmoak besterik ez dira. ◀

ENEKO DORRONSORO



Aurrera begira Gorostiagako industrialdea darabilkite esku artean.

Leikin
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: Kale nagusia, 8 Tel./Faxa: 143097
TAILERRA: Larretxo, 10 beheal. Tel. 143474

KUKUTZ
serigrafia

· kamisetak
· txiskeroak
· paperezko poltzak
Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

*Jesuskoa
Jatetxea*



Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA





Murritztu ezean, birziklatu

Aurreko zenbakian aipatzen genuen zaborren kopurua murriztea zela onuragarriena, ingurune-arentzat zein gure patrikientzat. Alperrikakoak diren zorroak eta ontziak ezabatuz gero, zaborren pilaketaren arazoa konpontzeaz gain, hauen gestiorako gastatzen dugun diruaren zati handi bat aurreztuko genuke. Baina badakigu gure gizarteak nola funtzionatzen duen, zein muga ditugun. Murrizketak berak ere muga bat du. Zer egin orduan geratzen den zaborrarekin?



Hemendik urtebetera plastikoak bereizten hasi beharko dugu gero birziklatzeko.

Birziklapena da murriztapenaren ondoren datorren irtenbidea. Hau da, behin zaborra sortu eta gero, material guzti horiek berreskuratzea da kontzeptu honen helburua, egokitu ondoren, berriro erabilgarria izan dadin. Adibidez, erabilitako papera zabortegira eraman beharrean, berreskuratu eta egokitu ondoren berriro erabil daiteke. Gaur egun nork ez du ezagutzen paper birziklatua?

Dagoeneko guztiok ohitu gara gure herriko kaletan mota eta kolore ezber-

dinetako edukinontziak ikustera. Badakigu urdinetan papera sartu behar dugula, berdeetan beira, eta horietan pilak. Geratzen den zaborra beste edukinontzi arruntetan sartzen dugu. Baina duela urte gutxi gogoratzen al zarete nolakoa zen zaborren bilketa. Ez genuen ezta edukinontzirik ere! Baina ez pentsa ordutik hona egin dugun ahalegina-ekin dena konponduta dagoenik, ezta gutxiagorik ere. Pentsatu kontenedore arruntetan sartzen duzuen zabor

poltsan zer doan oraindik zabortegira. Janarien hondakinez gain, plastikoak, latak, eta beste mila produktu arriskutsu ez ditugu oraindik behar bezala tratatzen.

**98aren amaieran
edukinontzi laranja
jarriko digute, latak,
plastikoak eta
bestelako zorroak
bereizi eta birzi-
klatzeko.**

1998aren amaieran edo 99aren hasieran edukinontzi berri bat jarriko digute, laranja kolorekoa. Orduan, papera, beira eta pilak bereizi eta bakoitza bere edukinontzian sartzeaz gain, plastikoak, latak eta bestelako zorro eta ontziak bereizi beharko ditugu zabor poltsa arruntetik. Gehiegizko lana iruditzen zaizuela? Gure bizimoduagatik ordaindu behar dugun patua baino ez da, eta larriena izan dadila!! Badakizue zaborrak murriztu ezean, birziklatu eta... zaborrengatik gehiago ordaindu. ◀ **GORKA ZABALETA.**



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko, 12

Tel. 861412

ZALLA

Taberna- Erreategia

**Plater konbinatuak
*otartekoak
oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

MILA ILE APAINDEGIA





Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAILA

GUGGENHEIM museoak untzi itxura du,

Zumaian kirol portu bat egin nahi dutela, zumaia guztiok dakigulakoan nago. Hau ez da iritzi bat; baieztapen bezala hartzen dut. Baina Guggenheim-ak untzi itxura duela, iritzia da; guztiz subjektiboa, nire ustez.



eta Zumaian KIROL PORTU bat egin nahi dute

1- Iritzi artikulu honetarako hasiera aproposa iruditzen zait. Beharbada azaldu behar dudun konparazioa guztiz pertsonala eta eztabaidagarria delako. Nondik nora jar daitezke parean, Arte munduarekin zerikusia duen eraikuntza bat eta itsas kirolekin zerikusia duen egitasmo amaitugabe bat? Bai bata eta bai bestea, lekuko beharrei jaramon handirik egin gabe ezarri dituztelako bertan. Eta azken finean, Guggenheimak Artearekin, Zumaia kirol portuak itsas kirolekin duen zerikusia duelako.

2- Askok idatzi dute Bilbon eraikitako museoak ez dela Bilbokoa, ezta Bilbok eskatutakoa ere. Besterik gabe estrategia ekonomiko-kultural-urbanistikoturistikoko baten ondorioa dela esan dute. Estrategia bezala ez dago batere gaizki; izen handiak erabili, eraikuntza

erraldoi bat eraiki eta publizitatea mundu guztian zehar zabaldu. Polemika pixka batek ere on egingo dio, kontuan izanda horrelako proiektu galantek beti ekarri ohi dutela polemika; bai mugitzen diren diru kopuruengatik eta baita diru horri etekinik aterako ote zaion hain garbi ikusten ez delako ere.

3- Arte mundua bultzatzeko egin duten, edo "Zatoz eta konta ezazu" bezalako turismo proiektuaren barnean kokatzen den, nork daki. Eraikuntza maisuki eraikia dagoela behin eta berriz irakurri dut, Arkitektura aldizkarietan; eta bertan erakusten diren artelanak, munduko artistarik ospetsuenek egindakoak omen dira. Beraz, zertarako hainbeste kexa? Zertarako hainbeste algara? Museotara inoiz joan ez den jendea

ikus daiteke-eta bertan; ez al da ba hori helburu nagusia? Herriak ordaindutako eraikuntza hau herriari eskaintzea. Ez dakit; merezi ez den oparia jasotzen denean esan ohi den bezala, "ni gutxiagorekin ere konformatuko nintzateke".

4- Bukatzeko, ariketa bat egin: Guggenheim hitzaren ordean Zumaia kirol portua jarri eta antzeko galderak sortuko zaizkizue-lakoan nago. Itsas kirolarekin zerikusia ote duen kirol portu honek, edota merezi ote duen hainbeste gastu eta esfortzu, etekina hain garbi ez dagoenean. Zumaia kirol portua nahiko handia izango balitz, Guggenheim-a Zumaia ekarriko al lukete? Zergatik ez? ◀

DANIEL CARBALLO OSTOLAZA

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

ERTZ informatika

ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET

orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 143395

Iker Ortiz,
txirrindulari gaztea



Dagoeneko denboraldi honetan bi garaipen eskuratu ditu.

“Mountain Bikea ziklo-krosa jaten ari da”

16 urteko txirrindulari gazte hau ziklo-kroseko denboraldi bikaina burutzen ari da jubenil mailan. Dagoeneko bi garaipen eta beste makina bat emaitza on lortu ditu eta hilaren 11n Santander aldean burutu zen Espainiako Txapelketan esku hartu zuen laugarren postua eskuratu.

Noiztik zabilta serio txirrindularitzan?

Serio-serio orain dela hiru urtetik, bestela alebinetan 10 urte nituela hasi nintzen. Beti gustatu izan zait txirrindularitza, bizikleta pila izan ditut baina txikitu ere pila bat txikitu ditut, eduki adina. Paretaren kontra bizikletan zenbat aldiz joan naizen ez dakit! Lehen bizikleta 3 urterekin oparitu zidaten, ondo gogoratzen naiz: G.A.C. gorri bat.

Aurreko urtetan maila ona erakutsi duzu, baina aurrean ari zara emaitza onenak lortzen, ezta?

Bai, gainera gauza nahiko arraroa da, ze nirekin konpetitzen dutenak ni baino zaharragoak dira; ni naiz gazteena. Jubeniletan hobekien gabiltzanak denak nire adinekoak dira, aurrean jubenil mailara igotakoak. Ez da normala lehen urtekoak maila honetan asentatuta daudenak baino hobeto ibiltzea.

Zenbat garaipen lortu dituzu denboraldi honetan?

Orain arte bi lasterketa irabazi ditut baina gehienetan hor ibili naiz lehen hiruen artean, erori edo erretiratu

beharra izan ez badut behintzat. Ormaiztegin irabaztea adibidez berezi xamarra egiten zait. Lehenengo karrera hor irabazi nuen eta aurrean ere garaipena lortu nuenean oso gustora geratu nintzen. Oso ondo ibiltzen naiz Ormaiztegin, ez dakit zergatik, baina horrela da.

Zer zirkuitutan ibiltzen zara hobekien?

Gero eta lokatz gehiago hobeto niretzat, bizikleta estaltzen badu lokatzak hobeto niretzat! Oso gogorra izatea, aldapa askorekin. Nire ezaugarrietatik, pedaleo edo desarroilo arina erabiltzen dut, eta honek uzten dit lokatz artean eta terreno gogorretan azkarrago joaten uzten dit.

Zeintzuk dira zure ezaugarriak txirrindulari bezala?

Igoeratan ondo ibiltzen naiz; baita lauan edo aldaparik gabeko lekuetan ere. Esprinean ibiltzen naiz gaizki; ez dut bukaerako abiadura hori eta horrek buruhauste bat baino gehiago ematen dit.

Zure burua profesionaletan ikusten duzu?

Hori ezin da inoiz jakin, oso zaila da. Jende ona dago, asko sufritu behar da, ni bezalako txirrindulari asko daude eta horregatik esaten dut zaila dela. Zorte ona izateak asko kontatzen du, baina ez zortea bakarrik, "entxufe" pixka bat edukitzea ere beharrezkoa da gaur egun aurrera jotzeko. Tristeia da hau esatea baina horrela gertatzen da, horrela funtzionatzen du.

Zutaz gain beste txirrindulari zumaia batzuk ere ondo xamar dabilta.

Gaizka Gonzalez ondo dabil, eta Mikel Aizpurua ere bai; bi hauek jubenil mailakoak ditugu. Mikelek errepedeko Gipuzkoako txapelketan hirugarren egin zuen, Gaizka ere Euskadikoan hirugarren izan zen. Gero, eskolartean, Ander Odriozola, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna dugu.



Lasterketa batzutan lokatzez beteta amaitzen dute, kasu honetan bezala.

Beraz, etorkizunik badago Zumaian?

Bai, baina gertatzen dena da ez duela zerikusirik gaztetan gertatzen denak eta gero urteak aurrera joan ahala gertatuko denarekin; horrek ez du ezer esan nahi. Jende asko geratzen da erdibidean, ez aurrera eta ez atzera, nahiz eta gazte-gaztetan emaitza oso onak lortu.

Entxufe pixka bat behar da txirrindularitzan aurrera jotzeko

Pentsa, nire kasua nahiko argia da. Orain dela gutxira arte gizen xamarra nintzen. 12 urterekin 63 kilo pisatzen nituen eta orain berriz 16kin 66 kilo. Bizikletan serio hasi nintzen lehen urtean zazpi kilo galdu nituen.

Zure kasuan ziklo-krosean hobeto ibiltzen zara errepidean baino, ezta?

Bai. Errepidean ere ez naiz gaizki ibiltzen, baina lehen esan dizudana, azken esprin hori falta zait. Nere kategoriako beste bi zumaia berriz, Gaizka Gonzalez esprinterra da (aurreko denboraldian sei lasterketa irabazi zituen) eta Mikel Aizpurua aldiz, txirrindulari konpletoa da: esprinean eta mendian ondo ibiltzen den horietakoa.

Zein da, zure ustez, ziklo-krosa hain egoera txarrean egoteko arrazoi nagusia?

Lehen sariak kristonak izaten ziren, bazegoen jendea ziklo-krosetik bizi zena eta lasterketa bakoitzeko dirutza bat irabazten zutenak. Orain, berriz, ez dago dirurik eta honetaz gain mountain-bikeak asko jan dio ziklo-krosari. Lehen ziklo-kroserako zegoen interesa, edo dirua neurri handi batean mountain-bikeak kendu dio, indar handiarekin sartu baita.

Egoera zein den ikusita, zure burua errepidera begira ikusten duzu?

Berez bai, baina errepidean ezin bada ziklo-krosera dedikatzea planteatu ninteke nahiz eta oso zaila izan. Hor dago adibidez David Seco. Errepidean ez da ona, erabaki zuen ziklo-krosetiko profesionala izan nahi zuela eta hortan dihardu Galizian, hango talde batekin. Han afizio gehiago dago eta txirrindulari honen kasuan behintzat hortik momentuz bizi daitekeela ikusten da.

Zure burua txirrindularitzan ikusten al duzu?

Ez dakit, momentuz ez dut horrelako gauzetan pentsatzen, afizio bezala hartzen dut txirrindularitza. Kirol bat aukeratu beharra neukan, hau hartu nuen, eta gustora nabil, noizean behin garaipenen bat edo beste lortuz. Pentsa gainera txirrindularitzan hasi ez banintz gaur egun zenbat kilo izango nituen! Ez naiz keitzten nola nabilen, baina etorkizuna beste kontu bat da, ez dakit zer gertatuko den.

Idolorik ba al duzu?

Olano asko gustatzen zait, baina pena ematen dit gertatzen ari zaizkion gauza guzti horientatik.

Konpetizioak zure bizimodua baldintzatzen du?

Honbre, mediku bat daukazu dieta bat jartzen dizuna, ahal duzun guztitan ordu berdinean jan behar duzu, ohera sartzerakoan eta jaikitzerakoan ere estiramendu batzuk egin... Entrenamendua ere ia egunero izaten dugu. Diziplina eta orden bat jarraitu behar duzu, bai. ◀ **IGOR URANGA.**

Maiaur
olastokia



Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



Juan Belmonte, 6
Tel. 860415

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407



Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

Plairotako txapelketa bigarren fasean sartu da

Lehenengo ligaxka bukatuta, plairotako txapelketa bigarren fase erabakiorrean murgilduta dago. Orain arte ustekabeko handiena Gesem talde gaztea ari da ematen; izan ere, partidu guztiak irabazteaz gain sendotasun handia erakutsi du. Ikusitakoaren arabera, talde hau dugu beharbada, Axier Kirolak eta Hiru Ezkurrekin batera, txapelketa irabazteko aukera gehien duena.

Jokoan dagoen bigarren fase honetan, talde guztiak bi multzotan banatu dira. Lehenengo ligaxkan onenak suertatu zirenak Liga deritzon txapelketa ari dira jokatzeko eta gainontzekoak Kopako fasea. Honako taldeok osatzen dituzte bi multzoak:

LIGA

1. Gesem
2. Txakur Amorratuak
3. Axier Kirolak
4. Kabi Genelek
5. Hiru Ezkur
6. Bastarrikalde

KOPA

1. Inpernupe
2. Siete Mares
3. Basusta Erretegia
4. Pub Eguzki
5. Ipurbeltz Gaztañaga
6. Mendi-Ondo Elektrizitatea
7. Pub Txikixa
8. Ekin-Buitraker

Bi talde hauetatik lehenengo lau postutan sailkatzen direnak finalerdietarako txartela lortuko dute. Bigarren fase honetan orain arte eman diren emaitzak honako hauek dituzte:

Kopari dagokionez, Inpernupe 6-Siete Mares 3; Basusta Erretegia 7-Pub Eguzki 4. **Ligan** berriz, Gesem 5-Txakur Amorratuak 1; Axier Kirolak 5-Kabi Genelek 4.



Kabi Genelek taldea Ligako fasean izango dugu.

Bi oikiar moto-krosean txapeldun

Orain artean moto-krosa bezalako kirolei arreta handiegirik eskaini ez diegun arren, oraingo honetan derrigorrezkoa zaigu honetaz hitz egitea. Eta kasu honetan bezala, albiste on batekin bada, orduan eta hobeto.

Bi oikiar, Eneko Alberdi "Pentzu" senior mailan eta Aitor Etxabe "Kaxko" juniorretan, 1997ko



Argazkian bi oikiarrak ikus ditzakezue, beren sariekin gustora.

Euskadiko Txapeldun suertatu dira, 250 c.c.-ko motorrekin. Euskal Motoziklismo Federazioaren eskutik burutu zen sari banaketa, Donostiako Miramar Jauregian.

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

Joseba Ossa
ITZULPENAK
euskara . gaztelera . katalana
ingelesa . frantsesa

Tel/Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es




ZURICH
ASEGURUAK


Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

Peri eta Talibanes taldeak garaile Gabonetako Txapelketan.

Urtarrilaren 2an jokaturako finalerako, Peri taldea futbito eta Talibanes saskibaloian suertatu ziren garaile. Futbitoko azken partidua horretan, Oilalokak taldekoak izan zituzten arerio, eta atsedenaldira hutsa iritsi ondoren, bigarren zatian Peri-koak erraz gailendu ziren 4 eta 1 eko emaitzarekin. Saskibaloian berriz, Talibanesek 49-42ko markagailuarekin mendean hartu zuen Egur taldea. Irudian losu Unanue, Peri taldeko atezaina, irabazleen garaikurra jasotzen.



Aita-Mari Arraun Elkartearen Urrezko Ezteiak. Abenduaren 30ean bete zituen Aita-Mari Arraun Taldeak 50 urte. 1947. urtean Jose Ignacio Apestegiren ekimenez, arraun mundua bultzatzeko asmoarekin, dozena bat lagun bildu ziren elkarte bat sortu nahian. Bildu ziren guztiek elkarte horri Aita-Mari izena jartzea pentsatu zuten eta hasiera batean martxan jartzeko arazo handiak izan bazituzten ere —material aldetik batez ere—, azkenean aurrera jo eta hor darrai bizi-bizirik Aita-Mari Arraun Elkarteak. Zorionak!



Gotzon Enbil finalista Urrezko Xisteran. Zestapuntalari gazte honek ezin izan zuen Urrezko Xistera deritzon txapelketa irabazi urtarreko lehenengo asteburuan. Bilbon jokatu zen azken partidua eta Gotzon Enbilek, Konpa aurreko kuadroetan lagun zuela, 35-30 galdu zuen Bereikua eta Goitiak osatzen zuten bikotearen aurka. Enbil eta Konpak, partiduko azken txanpa baino pixka bat lehenago, bost tantuko aldea zuten, baina azkenean kontrarioek abantaila hori ezerezean utzi eta norgehiagoka irabaztea lortu zuten.



inportaturiko erropa eta artisautza
Basadi 3 Zumaia

AHOLKULARITZA
JRURE

.GESTORIA.

Erribera, 17 Tel./Fax: 862600

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

"ZUMAIA 650" HITZALDI ZIKLOA.

D. Axentxio Elustondo, Zumaiaiko parrokoak, "Zumaiairen mila urteko bilakaera" hitzaldia eskainiko du.

► Urtarrilaren **16**an, arratsaldeko **7**etan,
Foronda Kultur Etxean



"Ihauteriak 98" KARTEL LEHIAKETA.

Oinarriak Forondan eskatu.

► Aurkezteko azken eguna, otsailaren **4**a

MARRAZKI ERAKUSKETA.

Gaia: "Nire familia". 17an joko batzuk egingo dira Oxforden bertan.

► Urtarrilaren **16**, **17** eta **18**an Oxford-en.

KONTROL MENTAL IKASTAROA

Izenematea, Forondan (86 10 56).

► Urtarrilaren **17**tik otsailaren **21**era
(larunbat goizetan, **10.00**etatik
11.30etara. Dohainik)

IDAZKETA TAILERRA,

Itziar Zubizarretarekin, 10-12 urteko haurrentzat.

► Urtarrilak **21**, arratsaldeko **6**etan.

MAHAINGURUA.

Gaia: "Euskara eta familia". Oihulari **Klown** taldeak "*Klownklusioak*" emanaldia eskainiko du.

► Urtarrilaren **21**ean, arratsaldeko **7,30**etan.

ZINEFORUM.

"*Tocando el viento*"

Zuz: **Mark Herman**

Akt: Pete Potlethwaite, Ewan McGregor, Tara Fitzgerald

► Urtarrilaren **29**an, gaueko **10,15**etan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, **9.30 - 13.30** eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, **10.00 - 13.00**

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, **16.00 - 20.00**

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, **10.00**etatik **13.00**era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, **10.00 - 13.00** eta
16.30 - 19.30

1998 *ra*ko harpidetzak

datuak idatzi eta buzoian edota Forondan uztea. Hemendik aurrera kobraketa banku bidez egingo dugunez, behar-beharrezkoa dugu kontu zenbaki osoa jakitea (20 zenbaki). Titularra beste norbait izango balitz, zehaztea komeni da; eta ahal bada kontua Kutxa edota Euskadiko Kutxakoa izan dadila.

Izen-abizenak

Helbidea

Telefonia

Kontu zenbakia (20 digitu) eta titularraren izena

Tarifak ez dira aldatu:

Herrikoak

1.000 pta.

Kanporakoak (postaz)

1.500 pta.



ilarfi
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324



HARRATEGIA

URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

Xabier Artola Julene Azpeitia ipuin lehiaketako irabazle

Xabier Azkuek jaso
du zumaiar onenaren
saria

Dagoeneko badakigu zein diren aurtengo Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketako irabazleak. Hirurek Xabier dute izena eta badirudi izen hau eramateak baduela zerbait berezia literatur edo sormen lanerako. Lehen saria Xabier Artolarentzat izan da, bigarrena Xabier Mendigurentzat eta zumaiarren artean Xabier Azkue izan da garaile.

Aurtengoa lehiaketa honen hamargarren edizioa da eta urtez urte gero eta oihartzun handiagoa jasotzen ari da, batik bat Zumaiatik kanpo. Ikusi besterik ez dago zeintzuk izan diren urte guzti hauetan sarituak, gehienak idazle ezagunak.

Baina urte honetan ez da horrelakorik gertatu, izan ere, 325.000 pezetako



Xabier Azkue,
Xabier Mendiguren
eta Xabier Artola.
Hiru sari hiru
Xabierrentzat.

lehen saria, Alkizan bizi den Xabier Artola antiguotarrak eskuratu du "Latituea" izenburua duen ipuinarekin. 40 urteko informatikaria, orain dela bizpahiru urtetik dabil idazketa lan hauetan, "baina beti ere era intimista batean". Orain arte ez zen sekula lehiaketa batera aurkeztu eta lehenengoan bertan sari nagusia jaso du.

Artolaren esanetan, hausnarketak eta barne sentimenduak idaztea atsegin zaio, "eta ipuin hau ere hauen bilduma bat da". Obra honetako gaia ihesa da, gizarteak eta gizabanako bakoitzak arazoei aurre egin beharrean nola ihes egiten saiatzen den kontatzen digu.

Irabazleak aitortu digunez, "sari honek ateak irekitzeaz gain, idazten jarraitzeko animo handiak ematen dizkit". Besteak beste sari honek bere

buruari konfiantza eta segurtasuna emateko balio izan diola esan digu, "askotan ez baitakizu idazten duzunak zerbaiterako balio duen ala ez".

Julene Azpeitiako bigarren saria, berriz, Xabier Mendiguren itzultzaile eta idazle ezagunarentzat izan da "Tamara" ipuinarengatik. Beretzat dira beraz, 150.000 pezeta. Gogoratu, idazle honek irabazi zuela iazko edizioa. Azkenik, eta sarien atal honi amaiera emateko, Xabier Azkuek eramanez dituen zumaiar onenarentzat gordeta zeuden 125.000 pezetak "Mendekua UEUn" ipuinarekin.

Bukatzeko aipa dezagun guztira 27 lan aurkeztu direla eta horietatik hiru bakarrik izan direla zumaiarrek idatzitakoak. ◀

IGOR URANGA

AZKUE

Taberna-jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

*Era guztietako instalazioak
etxebizitzara, pabiloi eta herriko argietan*

ARGIDENDA

Izaga, 1 behea

Tel/Faxa: 143402


TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908-143409

SOLOZABAL AUTOESKOLA

fidatzeko baimen guztiak

- Klase teorikoak zein praktikak norberak nahi dituztenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentziatarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416



**expert
ELEKTROGAILUAK**

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6

Tel. 861078

BALEIKE

1998ko urtarrila. 42. zbkoa.

ZINE FORUM

neguko zikloa



urtarrilaren 29an

Tocando el viento

Zuz: Mark Herman

Akt: Pete Postlethwaite,
Ewan McGregor, Tara
Fitzgerald

Britainia Handiko zinean klasikoa bihur daitekeen zine mota baten barruan sar genezake *Tocando el viento*: Margaret Thatcher-en politika katastrofikoaren ondorioz sortutako egoera sozialean oinarritutako zinea. **Stephen Frears** (*Mi hermosa lavandería*) eta **Ken Loach**-en (*Riff-raff*) filmerik onenak 80ko hamarkadako agintari honen politikaren denuntzia gogorrek dira. Urte batzutan giroa lasaitu bazen ere, azken bi urte hauetan garai hartako arazoetan oinarritutako bi filme egin dira famatu: *Full monty* eta *Tocando el viento*. Lehena komedia bat da; bigarrena, aldiz, askoz ere filme dramatikoagoa da.

Beren lanpostua arriskuan duten meatzari batzuen tragedia kontatzen du *Tocando el viento*. Hauek meatzean lan egiteaz gain, herriko musika bandan ere jotzen dute, baina beren lanpostuak galduz gero, musika afizioak alde batera utzi beharko dituzte. Beren egoera tamalgarria jendeari erakusteko, banden arteko lehiaketa batetara aurkeztuko dira meatzariak.

Aurreko urteko sorpresetako bat izan da filme britainiar hau. Arrakasta honen arrazoietakoa bat aktore zoragarri hauen lan bikainean datza. **Pete Postlethwaite** (*En el nombre del padre*), **Ewan McGregor** (*Trainspotting*) eta hemen ezezaguna den **Tara Fitzgerald** benetan izugarriak daude drama sozial gomendagarri honetan.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Demokratak eta biolentoak

Maitasun elaberriak irakurtzen zituen agurea

Abere madarikatuak

Euskara batuaren ajeak

Joxe Azurmendi

Luis Sepulveda

Antxon Gomez

Ibon Sarasola



Gaztelerez

Las cenizas de Angela

Afrodita

Un día cualquiera

Caidos del cielo

Yo no tengo la culpa de haber nacido tan sexy


Frank McCourt

Isabel Allende

Franca Rame & Dario Fo

Ray Loriga

Eduardo Mendicutti



Haurrak/Gaztetxoak

¡Como molo! (Manolito Gafotas)

Los trapos sucios (M. Gafotas)

Erregearen lepokoa

Elvira Lindo

Elvira Lindo

Olunda Cordukas



Nikol  Enea
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

gure txokoa

• taberna •

kaxelita eta pintxo ezberdinak


San Pedro kalea

1998rako gomendio batzuk

Urte berria hasi eta euskal musika monotonia batean erori den honetan, baliteke garaia izatea gure mugetatik kanpora begiratu eta hemen aurkitzen ez dugun musika entzuten hasteko. Hau guk gomendatzen ditugun disko batzuen zerrenda da. Bertan rocketik hasi, techno eta popetik pasatu, eta Kubako musikan amaitzen diren diskoak aurki daitezke. Hona hemen aurreko urtean egindako musika arriskutsuaz gozatzeko aukera.

SPIRITUALIZED: *Ladies and gentlemen we are floating in space*
Musika kritikarien ustez, 1997 urteko diskorik onena, eta rockaren historian leku garrantzitsua izango duen lana. Spiritualized nahiko rock espaziala egiten zuen talde britaniar bat zen, Estatu Batuetako Memphis hirian soul, jazz eta gospela ezagutu zuten arte. Horren ondorioz, disko zoragarri hau grabatu zuten, aurreko estiloez gain, popa, free jazz, garagea eta musika klasikoa aurki ditzakegun disko batean. Bikaina benetan.

PRIMAL SCREAM: *Vanishing point*
Eskoziar hauek beti ere musika estilo batetik beste batera pasatu izan dira beren diskoetan, baina argi gelditzen da onenak technora edo dantza musikara hurreratzen direnean ematen dituztela. Hala gertatu zen 1991n *Screamadelica* diskoarekin eta



berdin gertatu zen iaz *Vanishing point* honekin. Musika iluna, psiko-delia, dub eta rocka nahasten dituen. Orain gutxi *Echo Dek* izeneko diskoa atera dute, Adrian Sherwood ekoizlearen eskutik ateratako *Vanishing point*en dub bertsioa.

THE CHEMICAL BROTHERS: *Dig your own hole*

Prodigyren azken diskoarekin batera techno musikan sartzeko ate bat izan daiteke Manchester hiriko bikote hau, bi talde hauek izan baitira musika elektronikoa rock entzulegoari zabaldu diona. Bi talde hauen artean badaude ezberdintasunak, Prodigy techno-punka egiten badu, Chemical Brothersek bere musikan popa, psiko-delia eta zergatik ez, folka ere sartzen baitu. Gainera aurreko urteko kanturik bikainetakoaren egileak dira, *Block rockin' beats* basatiarena, hain zuzen. Udako musika jaialdietako talde fidagarrienetakoa, sintetizadore musikarekin ere saltoka hasi daitekeen seinalea.

RADIOHEAD: *OK computer*
Thom Yorkeren taldeak *Creep* kantuari ondoen bazirudien ez zuela ezer berezirik egingo, baina nola diren gauzak, urteko diskorik onenetakoa egin baitute. 1996an *Manic Street Preachers* taldeak egindako bideari jarraitu dio Radioheadek eta emozioa nagusi den disko bat atera du kalera. Bertan barruan sentitzen dituzten nazkak, kezak eta beldurrak kontatzen dizkigute britaniar hauek.

BUENA VISTA SOCIAL CLUB

Disko hau bihotzeraino heltzen den lan horietako bat da, teknologia berriak ahaztu, eta musikaren muinera joaten diren musikariek egindakoa. Buena Vista Social Club Ry Cooder kitarrajole estatubatuarra Kubara joan zenean sortu zen. Bertan irlako musikaririk onenak batu, Ruben Gonzalez pianojole aparta eta 89 urteko Compay Segundo barne, estudio batean sartu eta musika jotzeari ekin zioten. Emaizta benetan magikoa da. Behin entzutearekin igartzen da hau ez dela yanki batek bere luzimendurako egindako lana. Ry Cooder-ek guretzat guztiz ezezagunak izan daitezkeen musikari batzueganako izugarritzko mirespena sentitzen duela agerian ikusten da. Beren aldetik kubatarrek behin baino gehiagotan esan dute inoiz ikusi duten kitarrajolerik onena dela Ry Cooder. Buena Vista Social Club, historia guztiko kitarrajolerik onenetakoa eta irlako musikari apartak batzen dituen lana, agian Kubako musikari egin zaion omenaldirik onena. ◀

JUAN LUIS ROMATE

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Itzurun, 1
Tel. 860993



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkoadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

BALEIKE

1998ko urtarrila, 42. zbkia.

Zer esan duzu?



¿Qué has dicho?

Ikusi al zenituzten joan den abenduaren 19an 6 pailazo herrian bueltaka? Gu ginen, AEK-koak eta laguntzaileak. Girotu genuen bai, ondo girotu ere, azken eskola-eguneko festa. ZER ESAN DUZU? kanpainari hasiera eman genion hartara.

Aspaldikoak diren kantak atera genituen plazara -San Simon eta San Juda, Araban bagare, Euskal Herrian euskaraz...- eta ume eta gurasoen artean banatu ere bai. Arrakasta izan zuten, bai, esku-hutsik geratu baikin. Gure asmoa, momentu batez baldin bazen ere, euskara plazan hor egotea izan zen.

Lehiaketa txiki bat burutu genuen, galdera motz batekin: Nola esaten da euskaraz "MIS PADRES"? Halaxe, "NIRE GURASOAK", "NIRE AITAK"... erantzun zuten umeek eta kotxe gaineko buzoian sartu zituzten paperak. Noski, erantzun zuzena "NIRE GURASOAK" zen eta Irene Gimenez Urbietaren izeneko neskatoak eraman zuen saria.

Hasi eta bukatu, umeen festa izan zen EUSKARA arratsalde batez, eta horietako kanta zahar batek dioen bezala... EUSKARA JALGI HADI PLAZARA!

TXOMIN AGIRRE AEK EUSKALTEGIA



Artadi auzoa
Tel. 862189

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK; HP EPSON

FOTOKOPIAK 5 PEZETAN

Kale nagusia, 3 Tel./Faxa: 143453

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



Txistulari banda ez, Tapia kapitainaren agindutara dagoen ejerzitoa dirudi honek. A ze banda! 1980an udaletxe aurrean ateratako argazkian txukun-txukun ageri dira, formazioan, dotore, "kaikuak" jantzita. Seguruena txistulari asko ezagutuko dituzu: Inaxio Tolosa, Juan Kruz Urrestilla, Laxaro Egaña, Martindarrak...



TXAPARTEGI GOZOTEGIAK eman-dako azken tarta **Ibon** eta **Julen Vicente** rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, erantzun zuzena **Goiko Plazan** zen, eta argazkiko denda **Karmen** eta **Enrikerena**.

Tripa-festa lehiaketa

Aldizkariarekin batera gure lehiaketa ere berritu dugu; izan ere, tartak utzi eta hemendik aurrera 2 pertsonentzako afariak zozketatuko ditugu.



Zein da argazkian ageri den txapelgorria?

Asmatzen duzuenon artean **KALARI JATETXEA** amanda afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, urtarrilaren 28a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



MAITE
ILEAPAINDEGIA

bereizitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tel. 143278



Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa

CORO PRIETO
Estelicista

Bonifazio Etxegarai plaza z/g
Tel. 861322

motxian hi!

zein: Carlos González

zer: administrari laguntzailea

nola: Carlos/Gallego



Noiz etorri zinen Zumaiaara? Eta nolatan?

1994an; gustatu zitzaidan, leku polita ematen zuen bizitzeko... eta lan egiteko.

Nola prestatzen da olagarroa?

Kobrezko kazerola batean egosi behar da denbora determinatu batean; gatzia eta olioia bota eta egurrezko plateretan atera behar da. Azkenean pipermina botatzen zaio.

Zer duzu nahiago Calidade edo Euskal label?

Berdin zait, biak dira onak.

Ilargian dagoen gallegoa zu al zara?

Ez, bestela ez nintzateke hemen egongo galdera hauei erantzuten.

Zer da Zumaiaatik gehien apreziatzen duzuna?

Gauza desberdinak egiteko dagoen barietatea.

Nola esaten da Baleike galizieraz?

Pode ser.

Azkenean denok ikasi beharko al dugu informatika?

Ez da beharrezkoa, baina edozein lan egiteko nahitaezkoa da.

Neska idealaren deskribapena.

Ilehoria eta tonta.

Sexu birtuala probatu al duzu?

Ez. Ez daukat beharrezkoa den materiala egiteko. Oso garestia da.

Zer eskatzen diozu urte berriari?

Gutxienez aurreko urtea bezalakoa izatea, ona izan baita.

Zer ekarri dizute erregeek?

Gauza pila bat.

Zeltiarra konsideratzen al zara?

Bai. Breogan jaingo zeltiarra da eta gure himnoan erreferentzia egiten zaio.

agurrak

Gorrez jauna: "super-jatorra haiz, baina horren zatarra..."

Hi Peeeeeee... hoi dek hoi zakueeee. Eskorrian esku sartzen ez huan giro! Eta sekadorarekin borrokan ihardun ondoren

Xubiment, pasa hai Ganbarako bankuak garbitzea

Roncitua eta gogua, hoi dek negoziua. Txoskerua.

Ez Barca, Ez Madrid... Sesmagarin!

Pepeio, akordutzen gaituk, forever. Scotland Free.

Hi Joakin kontuz ballakin hiii... mekaueen izane... tu de que vas? eh? Hi entonses se ingoiu ba!

ITZURUN
KIROLAK

BARRENETKEA

Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

Jadarre, 18-2.D
Tel. 861449

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneako menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel.861853



taberna

JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

KOSTA



GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA

Tel. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.

ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE.




Zatoz eta galdetu!

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



TXINDURZI ITUARI

SAGARDOTEGIA

- Txotxeko sagardoa.
- Tortilla, bakailua eta txuletak.

Asteaz zehar afariak.
Asteburutan bazkari eta afariak.



Tel. 19 93 89 Itziar.

